

# MUk lotura teknologietan espezializatutako ikerketa zentro baten sorrera bultzatuko du. Zentroa Ordiziako campusean egongo da, eraikin berri batean, eta bakarra izango da Euskal Herrian

2008/03/14

**Ordizia, 2008ko martxoaren 13a.** Datorren urtetik aurrera, Mondragon Unibertsitatearen Ordiziako campusa Europara egokituta egongo da. 2008/090 ikasturtean, campus honetan ikasiko duten berrehun bat ikaslek Europar ezarritako Goi Irakaskuntzako erronkekin bat egingo dute, eta fakultate honek lau urte iraungo duen Mekanikako Ingeniaritza Gradua eman ahal izango du. Horretaz aparte, edozein ingeniartzatako lehen kurtsoak egin ahal izango dira, horiek ere Europako betekizunetara egokituta.

Ordiziako campus honen proiekturik nabarmenenen artean, bertan egingo den eraikin berria dugu. Eraikin horretan, besteak beste, lotura teknologietan espezializatutako Lortek ikerketa zentroa egongo da, Euskal Herrian lehena. Zentro horren bitartez, unibertsitateak eta Goierri Fundazioak inguruko enpresek lotura tekniken alorrean dituzten premiei erantzun nahi izango diete. Era berean, Mondragon Unibertsitatearen beraren ikerketa zentroa dugu eraikin berrian egongo den zerbitzurik garrantzitsuenetako bat. Zerbitzu horrekin eskualdeko enpresek teknologiaren edozein alorrean izango dituzten berrikuntza premiei erantzungo zaie, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikertzaile eta irakasleen laguntzarekin.

Gainera, eraikin berriak Unibertsitateak Ordiziako campusean emango dituen titulazioen hirugarren zikloak hartuko ditu bere baitan; ziklo horiek Europako gainontzeko herrialdeetan ez dira oso ohikoak, eta lotura teknikekin zerikusi zuzena izango dute eta profesionalei lotura teknologietan aditu izateko behar dituzten formazioa eskainiko diete.

Eraikuntza egiteko 12 milioi euroko inbertsioa behar izan da. Obrak datorren maiatzean edo ekainean hasiko dira eta 2009ko irailera edo urrira arte iraungo dute, 2009/2010 ikasturtearen hasieran martxan jartzea nahi da eta.

## Goierriko campusa

Mondragon Unibertsitatearen Goierriko campusa 2005ean sortu zen, eskualdeko enpresa sarearen beharrei erantzuteko helburuarekin. Campusak oso-oso espezializazio maila altua du mekanikako ingeniartzan, batez ere lotura teknologien arloan. Campusa Goi Eskola Politeknikoaren ingeniartzako titulazioen berezko jarduera akademikoak batzeko sortu zen, baina, horrez gain, eskualdeko enpresei zerbitzu teknologikoa eta enpresariala eskaintzeko zentroa ere bada, Goierri zentroaren bidez, ikerketa aplikatuko proiektuak lantzerantz zuzendua.

Martxan jarri zenetik, lau ikasturtetan campus horretatik zortziehun ikasle inguru igaro dira. Goierriko campusa Mondragon Unibertsitateak Goierri sustatzeko eta bultzatzeko duen helburuaren emaitza da, prestakuntza zentroak ezartzearen bitartez. Hain zuzen ere, campus honek ikasteko eskaintzen duen aukerak –hau da, mekanikako ingeniartzeta eta lotura teknologien espezializazioa– lotura zuzena dauka eskualdearen jarduera sozioekonomikoarekin eta enpresen beharrekin.

## Europara egokitzea

Mondragon Unibertsitatearen eskaintza akademikoa Europara egokituta egongo da. 2008/2009 ikasturteetik aurrera, unibertsitateak zortzi titulazio eskainiko ditu Europako Goi Irakaskuntzako Gunera moldatuta eta, ondorioz, Europako Gunera egokitutako lehenengo euskal unibertsitatea izango da. Horrek Mondragon Unibertsitatearen izaera berritzailea eta aitzindaria uzten du agerian, izan ere, orain dela zazpi urte baino gehiago hasi zen Mendeberrri hezkuntza eredia lantzen, zeina guztiz lotzen zaien aipatu Europako Gunearen baldintzei, bikaintasuneko prestakuntzan oinarrituta. Zalantzarik gabe, unibertsitate



honen apusturik garrantzitsuenetakoa da hori, eta enpresetan eta erakundeetan sortzen ari diren beharrei eta aldaketei heltzeko nahiari erantzun nahi dio, bere arduradunen iritziz, egoera horrek errotiko aldaketa eskatzen baitzuen hezkuntzaren kontzeptuari dagokionez; horrenbestez, Europako goi mailako irakaskuntzaren erronkari aurrea hartu dio.

Hezkuntza aldatzeko beharra detektatu eta gero, eta prozesuetan eta ikasketetan eraldaketa horri ekiteko beharrezko metodologia aplikatu eta gero, Europarako bidean azken urrats bat baino ez zen falta: eskaintza akademikoa egokitzea. Datorren ikasturtetik aurrera errealtatea izango da. Egindako ahaleginari esker, hala nahi duten ikasleek aukera paregabea izango dute datorren ikasturtetik aurrera europar esparrura egokitzeko eta bikaintasunean prestatzeko. Aukera izango dute prestakuntzaren tren europarrera igotzeko, gune komun horretara egokitutako lehenengo promozioan. Berez, hori egin ahal izango duten Euskal Herriko lehenengo ikasleak izango dira, beren titulua Europako exijentziei moldatuta atera ahal izango duten lehenengo ikasleak.

### **Prestakuntzaren tren europarra: hezkuntzaren berringeniaritza**

Mondragon Unibertsitateak bere makineria abiarazi du prestakuntzaren tren europarrera igotzeko. Datorren ikasturtean unibertsitateak eskainiko duen irakaskuntza egokituak irakaskuntza tradizionalaz bestelako eredu bat planteatzen du. Eredu berriaren xedearen arabera, pertsonak gaitasun pertsonalak, sozialak eta profesionalak garatzen dituzte, lan eremuaren erronka berriei aurre egiteko aukera ematen dietenak; norbere prestakuntzaz arduratzeko gai diren pertsonak, elkarlanean aritzeko pertsonak, proiektuak gidatzeko, erabakiak hartzeko, negoziatzeko eta komunikatzeko pertsonak.

Finean, irakaskuntzaren eredu klasikotik, eta eredu hori ezagutzen transmisioan eta irakaslearen protagonismoan oinarrituta dago, gaitasunetan oinarritutako prestakuntzara igarotzea esan nahi du, hau da, ikaslearen autonomia eta beste gaitasun batzuen garapena sustatzen du. Hezkuntza proiektu honetan ikaslearen partaidetza bultzatzen da, lankidetzak, erantzukizunak barneratzea bultzatzen da; alegia, ereduak ikaslea prestakuntza prozesuaren erdi-erdian kokatzen du, eta eragile proaktibo bihurtzen du.

Izan ere, ikasgaien diseinua lanbidera zuzenduta dago, hau da, lortu nahi den emaitza lortzera bideratuta dago, eta hor hainbat kontzeptu sartzen dira, horien artean diziplina arteko harremana, elkarren arteko erlazioa eta ikasgaien osagarritasuna.

Prestakuntza teknikoaren ondoan, eredu berriaren beste zutabe garrantzitsu bat trebetasunak, gaitasunak eta balioak garatzea da, hau da, ikasleari prestakuntza hobea bermatuko dioten zeharkako gaitasunak, ez soilik ikuspegi teknikotik, pertsonaletik ere baizik. Gidatzeko, talde lana egiteko, komunikatzeko, ekintzailea izateko gaitasuna. Eredu hirueleduna, zeinean amaieran ikasleak bere jardura gutxienez euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez garatu ahal izango duen, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietatik datozen aukerak ahalik eta gehien aprobetxatuz.

Biziki aldatuko den beste elementu bat irakaslearen rola izango da, tutore antzeko bihurtuko baita, ikaslearen ikaskuntza sustatzeko eginkizun aktiboarekin. Irakaslea zuzenean inplikaturiko da ikaskuntza prozesuaren kudeaketan eta, gainerako irakasleekin batera, elkarlana gauzatzen dute ikasleak bereganatu behar dituen gaitasunak ezartzeko. Irakaslearen rola ere aldatu egiten da. Bere ikaskuntza prozesuaren subjektu aktibo bihurtzen da, lan taldeen bitartez ikaskuntza autonomia eta kooperatiboa sustatzen baita.

Plangintza akademikoari dagokionez, prestakuntza prozesua baloratzeko orduan, kontuan hartuko da bai ikasleak ikasgelan ematen duen denbora, bai ikasgelatik kanpo lanean ematen duen denbora. Hau da, plangintzak ikasleak egiten duen lan guzti-guztia hartuko du kontuan, ikasgela barrukoa zein kanpokoa, eta unibertsitateak konpromisoa hartzen du ikasleak karrera amaitzeko ezarritako epeak bete ditzan bermerik handienak bilatzeko. Balorazio sistemari dagokionez, amaierako azterketetan oinarritutako ebaluazio ereduak desagertu egiten da, eta etengabe baloratzen da ikasleak egiten duen lan guztia eta lortzen dituen gaitasunak. Hau da, etengabeko ebaluazioaren eta ebaluazio globalaren kontzeptuak sartzen dira.

Halaber, eredu berriak ikaslearen ehuneko ehun egiazko enpresetan prestatuko direla esan nahi du, praktikak eta karrera amaierako

proiektuak egiazko proiektuen barruan egitea segurtatzen baita, eta planteatu den helburua da ikasleen mugikortasun ratioa ehuneko ehunekoa izatea, unibertsitatean ari diren bitartean atzerrian egonaldiak egingo dituztela bermatzeko.

### **Eskaintza akademikoa**

Datorren ikasturtetik aurrera, unibertsitateak zortzi titulazio eskainiko ditu europar gunera egokitutako ingeniartzaren eta enpresa zientzien arloan. Zehazki, Goi Eskola Politeknikoak titulazio hauek eskainiko ditu:

- Industria Ingeniaritzako gradua / Industria Teknologietako Ingeniaritza + Industria Ingeniaritzako masterra
- Telekomunikazioko Ingeniaritza gradua / Oinarrizko Teknologien Telekomunikazioko Ingeniaritza – Telekomunikazioetako Ingeniaritza masterra
- Mekanikako Ingeniaritza gradua
- Industria Elektronikako eta Automatikako Ingeniaritza gradua
- Industria Antolakuntzako Ingeniaritza gradua
- Informatikako Ingeniaritza gradua
- Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza gradua

Milurteko berriko ingeniariak etengabe eguneratu behar ditu bere heziketa, informazioa eskuratzeko gaitasuna, ingurunearekiko harremanak eta garapen integrala, ezagutzaren gizartera begira. Hain zuzen ere, ingeniariak behar dituen etengabeko, diziplinarteko eta egokitzapen bidezko prestakuntzaren printzipioetan oinarrituta, titulazio berriei esker, une bakoitzean bere karrera profesionalaren diseinua eta ezarpena planifikatu, garatu eta kudeatu beharko ditu, horrek berekin dakartzan inplikazio laboral eta sozial guztiekin. Horregatik, uneoro, bere ingurune teknologikotik eta sozialetik know how eguneratua lortu behar du, norbere profil eta ibilbide profesionala detektatutako beharretara hurbiltzeko.

Horrez gain, Enpresa Zientzien Fakultateak Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua ere Europako Gunera egokituta emango du. Prestakuntza horrek enpresa zuzendaritzari buruzko ikuspegi globala ematen dio ikasleari, irakaskuntzako metodologia berriak erabiliz lortuko dituen ezagutzen, gaitasunen eta balioen bitartez, horien garapenak arlo profesionalari arrakastaz aurre egitea ahalbidetuko baitio. Eraitza mundu globalizatuan eta eleaniztunean lan egiteko hobeto prestatuta dagoen ikasle bat da, atzerriko unibertsitateetan eta enpresetan egonaldiak egingo dituen eta jarduera akademikoak hizkuntza desberdinetan garatuko dituen ikaslea. Finean, enpresa bikaintasunaren bila, enpresetan aldaketa bultzatzeko eta kudeatzeko gai izango diren tituludunak.